



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Astearta
2008-07-01

VIURTEA 1.474.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

«Maila guztietan oso onuragarria izango da Euskal Unibertsitatea»

TOLOSA Euskalgintzako zortzi erakundek osaturiko Euskal Unibertsitatearen Aldeko Fundazioa aurkeztu dute

KOKAPENA Tolosan izango du egoitza nagusia; Nafarroan ere izango luke kanpua; zehazteke daude titulazioak 3



Herritarren arteko herri kirol lehia egin zuten Asteasun, San Pedro Egunean. ANDER OTEZABAL

AGUR ESAN DIETE AURTENGO SAN PEDRO JAIEI

TOLOSALDEA Herenegun San Pedro Eguna ospatu zuten Larraitzen, Asteasun, Leaburun eta Urkizun; atzo, Jubilatuen Eguna Asteasun 4

'Urki' garaile Gipuzkoako Txapelketan

SEGA Bere buruarengan konfidantza zuela eta entrenatzen ere ondo aritu dela azaldu du 6



Little Charlie and The Nightcats taldeko abeslaria, Plaza Berrian larunbatean. H.

Jende ugari izan da Tolosandbluesen kontzertuetan

TOLOSA Antolatzaileak oso pozik daude aurtengo jaialdiak izan duen harrerarekin 2

Harrera «oso ona» izan du Tolosandbluesek

Musika » Aurten laugarren urtea bete du blues jaialdiak; antolatzaileak gustura daude, eta balorazio baikorra egin dute.

INIGO TERRADILLOS

Blues doinuez jantzi zen Tolosa iragan berri den asteburuan, izan ere Tolosandblues jaialdiaren laugarren edizioa antolatu zuten, eta hiru talde handiz gozatzeko aukera izan zen ostiral eta larunbat gauean. Izan duen harrera eta taldeek eskaini dituzten emanaldiak ikusita, antolatzaileak oso gustura azaldu dira, «aurreikuspenak bete egin direlako».

Iñigo Martín antolaketa taldeko kideak adierazi duenez, «kozkortzen ari den haurra da jaialdia, oraindik laugarren urtea duelako, baina, urteik urtera ikus dezakegu indarra hartzen ari dela pixkanaka». Horretan, Tolosara ekartzen dituzten taldeek eragin handia dutela dio, «talde hauek eskaintzen duen kalitateak jendearen presentzia bermatzen baitu, eta horregatik jendea jaialdi honetara ari da ohitzen». Kontzertuetara joan den jendea dagokionez, denetarik dagoela dio Martinek: «Blues doinuez zaleak izan dira gehienak, eta asko eskualdetik kanpokoak, bereziki kontzerturen bat ikustera etorritakoak; baina asko musika hau gehiegi ezagutzen ez dutenak izan dira, eta hauetako batzuk aipatu zidaten kontzertuak amaitzean oso ondo egon direla».

600 lagun inguru Plaza Berrian
Aurtengo jaialdiaren izarra Little Charlie and The Nightcats taldea izan da. Amerikako Estatu Batuetako talde honek larunbat gauean eman zuen kontzertua Plaza Berrian, eta Iñigo Martinek azalduta koaren arabera, 600 lagun bildu ziren. «Espero genuen maila eman zuten, 2 ordu inguruko emanaldian; saio borobila izan zen. Doinu klasikoak eta berrienak jo zituzten, beraz, denetarik izan zen en-



The lazy jumpers taldea Fronton kafetegian, ostiralean. HITZA

tzungai. Goi mailako musikariak direla argi geratu zen; berezitasun bezala, bi gitarra-jotzaile egon ziren, normalean bat dagoenean, eta horrek puntu berezia eman zion, eta abeslariaren ahotsa ere nabarmendu behar da, iradokitzailea, baxua, azken batean, oso ona». Plaza Berrian elkartu ziren ehunka lagunek kontzertuaz gozatzear, musikariak ere «oso gustura» egon ziren, «kontzertuan bertan, eta baita aurretik ere, Ero-Etxe elkar-teen afari polita eskaini baitzieten».

Frontonen ere «jende ugari»

Larunbateko kontzertu arrakastatsuz gain, beste bi ere izan ziren ostiralean eta larunbatean, eta «hauek ere oso harrera ona izan zuten». Ostiralean, The lazy jumpers izan zen Frontonen, eta «oso kontzertu polita» eskaini zuten, «atsegina, eta animatua». «Jendeak kontzertuaren ostean bete bete anasmatu genuela talde kataluniarrekin aipatu zuten, eta musikariak ere oso gustura aritu zirela azaldu zuten», dio Martinek. Taldeko abeslariaren ahotsa nabarmendu du Martinek, «sekulako ahotsa baitzuen, oso interesgarria».

Bestalde, larunbatean, Little



3.000 hontres taldeko gitarra-jotzailea eta Little Charlie and The Nightcats taldeko kideak (jam sesion) Fronton Kafetegian, larunbat gauean. HITZA

Charlie and The Nightcats taldearen kontzertuaren ostean, Tresmil hontres taldearen musika izan zen entzungai Frontonen baita ere. Blues, rock eta soul doinuak izan ziren batik bat, eta solo ugari jo zituzten. «Kalitate handia duela erakutsi zuten talde honek, eta Fronton kafetegia bete egin zen».

Datorren urteari begira

Aurtengoari begira, beraz, oso balorazio baikorra egin dute antolatzaileek. Hurrengo urteko jaialdia-

ri begira, aurtengo maila mantentzea izango da asmoa, eta «ahal bada hobetzea ere bai, baina oso zaila izango da, esaterako, Little Charlie and The Nightcats bezalako talde baten maila hobetzea». Udazkenean hasiko dira Tolosandblues jaialdia antolatzeko lehen bilerarekin, eta dagoeneko 4 edo 5 musika talderen izenak badietuela buruan ere azaldu du Iñigo Martinek, baina, «azkenean zein talde etorriko diren bileretan zehaztuko dugu».

Laburrak

San Fermin jaietara, Harizpe elkartearekin

TOLOSA • Hilaren 10erako Iruñeko sanferminetara irteera antolatu du Harizpe jubilatuek elkarteak, Blanca de Navarra jatetxean bazkalduz. Izen-ematea, Harizpe elkartearen egin ahalko da.

EHGAM taldearen erakusketa Leidorren

TOLOSA • *Homofobia, Lebofobia eta Transfobiaren aurpegiak*, EHGAM taldearen erakusketa Leidor aretoan dago ikusgai.

Jubilatuaren festarako izen-ematea

TOLOSA • Uztailaren 6an egingo den Jubilatuen Festarako izen-ematea egin daiteke Harizpe eta Iurriza jubilatuek elkarrekin. 65 urte izan eta Tolosan bizi diren herritarrei zuzenduriko festa da.

Jose Luis Lopezen lanak ikusgai Itaie tabernan

TOLOSA • Jose Luis Lopez Tolosaren margolanak ikusgai daude Itaie tabernan. Tolosa, Donostia, Donibane eta Errezilgo paisajek nabarmentzen dira bere lanetan.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irra. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Egitarau berezia prest, Gazte Topagunean

ERREDAKZIOA

Uda honetarako Gazte Topaguneak egitarau berezia antolatu du 13-17 urte bitarteko gazte tolosarren-tzat. «Ekintza erakargarriez» osaturik egongo den programan parte hartu nahi duenak topagunean eta parte hartu nahi duen ekintzetan izena eman beharko du.

Topagunea uztailean zehar asteartetik ostiralera bitartean egongo da zabalik 16:30etik 20:30era, eta ekintza bereziak egongo diren egunetan itxita egongo da. Pixxien



Pasa den urteko udan, Gazte Topagunean eginiko ekintzetako bat. HITZA

tailerra topagunean, basket 3x3 (Usabalen), rafting Bidarraien, zinema Topagunean, irlara irteera, karts-akolaberrian, funky tailerra, txalaparta tailerra, billarra, ping pong, futbolina, torneoa, pintxo tailerra... izango dira ekintzak. Bestalde, ikasturteari amaiera emateko Lain taldearen kontzertua udako festa perkusioa eta merienda izango dira. Informazio gehiago nahi duenak www.tolosakoudala.net helbidean edota 943 67 03 83 zenbakian topatu ahalko du.



Joan den larunbatean aurkeztu zuten Euskalgintzako hainbat eragile osatutako Euskal Unibertsitatearen aldeko Fundazioa. IMANOL OTEGI/ARGAZKI PRESS

Euskal Unibertsitatea hemen kokatzea «onuragarria izango da» Tolosarentzat

Hezkuntza » Larunbatean aurkeztu zuten Euskal Unibertsitatearen aldeko Fundazioa; honek ere eskualdean du egoitza.

ESTI EZEIZA

Euskal Unibertsitatearen sortze bidean pauso garrantzitsu bat eman da, honen aldeko fundazioaren argitu zituzten agerraldian. Bestek beste, Unibertsitatearen egoitza zentralaren kokalekua.

Hainbat aukera eztabaidatu ostean, Euskal Unibertsitatearen kanpus nagusia Tolosan egongo da. Dena den, lurraldetasun irizpideari jarraituz, bultzatzaileen asmoa da Nafarroan beste egoitza akademiko bat, aldi berean jartzea. Bestalde, fundazioaren egoitza soziala bera ere Tolosan izango da, Abastoseko eraikinean.

Euskal Unibertsitatea sortzearen egitasmoa nondik datorren ikusteko, atzera begiratu beharra

dago. Izan ere, 2006an erredaktatu zen proiektu akademikoa. Bertan 13 titulazio aurreikusten ziren, baina hauek murriztea erabaki dute. Honez gain, zenbait zorrozte eta doitze lan egiten ari dira, proiektuaren behin betiko txostena osatzeko. Hau, udazken aldera Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailera igorriko dute, bertan aztertu dezaten eta Gasteizko Legebiltzarrean aurkez dadin. Honenbestez, Eusko Legebiltzarrak egitasmoa onetsi eta Euskal Unibertsitatea legez sortu ahal izateko berriazko legea onartu beharko dute. Hori eginda, Unibertsitatea sortu dela esan daiteke, hala ere, gero estatutuak gauzatu beharko dira eta egoitza eraiki.

Hasierako fundatzaileak

Euskal Unibertsitatea alor akademiko hutsetik ez ezik, herri ekimenetik ere etorriko da. Hala, sinergien metaketa izango da proiektuaren indarra. Alfabetatzea eta euskalduntzea, komunikazioa, kultur gintza, hezkuntza, formakuntza akademiko eta sindikala, euskararen normalkuntza edota

nazio garapena bat eginda ageri dira sortu berri den Fundazioan. Halaber, ondorengo zortzi erakundeek osatzen dute hau: Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (AEK), Euskarazko Komunikazio Taldea (AEK), Elkar Fundazioa, Euskal Herriko Ikastolen Federazioak (EHIK), Ipar Hegoa Fundazioak (LABen ikasketak sindikalarako fundazioa), Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua, Nazio Ezbaita Gunea eta Udako Euskal Unibertsitatea (UEU). Hala ere, atek zabalik ditu oraindik Fundazio honek, beraien asmoa, agerikoa izateaz gain, ikuspegi parte-hartzaile eta zabal duena baita.

Unibertsitatearen ezaugarriak

Euskal Unibertsitatearen sustatzaileen artean, nabarmentzekoa da UEUK egindako lana. Bera baita aitzindari historikoa, eta baita, etorkizuneko Unibertsitate honen erreferente ere.

Egitasmoaren alde lan egiteko sortu den Fundazioak, duela urte batzuk, UEUK egindako hausnarketarekin bat egiten du, eta ondo-

rengo ezaugarriak beteko ditu. Alde batetik, «Euskaldunon Unibertsitatea eleanitza» izango da. Euskararen hizkuntza-komunitatea eratzeko eta garatzeko balioko du. Gainera, gizartearen parte-hartzearen sustatzaile izango da, herriaren zerbitzura dagoena, eta demokratikoa. Bestalde, Euskal Herriaren eraketa soziopolitiko-rako lagungarri izango da. Azkenik, Europako unibertsitate-esparruan homologagarria izan beharko du.

Fundazioko ordezkariak azaldutakoaren arabera, «Euskal Unibertsitatea osagarritasun izpirituarekin jaioko da». Honenbestez, geroak eta gizarteak esango du orain egindako lekutuak zein dimentsio hartuko duen etorkizunean.

Proiektu honek Euskal Herriko unibertsitate-maparen hainbat ahulgune antzaldatu eta indartu nahi ditu hasieratik. Esate baterako, unibertsitate-lurralde zatiketa. Hori dela eta, sortu berri den Euskal Unibertsitatearen aldeko Fundazioak Euskal Herri osoa hartuko du kanpus gisa.

» INKESTA

1. Zer ekarpen egingo dio Euskal Unibertsitateak Tolosari?



«Tolosan izatea ona izango da tolosarrentzat»

Martxelo Otamendi
BERRIA-REN ZUZENDARIA

1. Pozgarria da euskaraz lan egingo duen unibertsitatea gurean izatea. Lehia handia egon da kokagunea aukeratzeko garaian, eta Tolosan izatea ona izango da tolosarrentzat nahiz unibertsitatearentzat.



«Formaziorako gune bilakatuko da Tolosa»

Jokin Bildarratz
TOLOSAKO ALKATEA

1. Formaziorako gune bilakatuko da Tolosa, eta gainera, euskararen aterkia izango du. Ekonomia bultzatzeko ahaleginetan ari gara, eta hau ere, horren baitan dago.



«Erreferentzialtasuna aitortzeko balioko du»

Antton Izagirre
NAZIO EZTABAIDAGUNEKO KIDEA

1. Arrazo askogatik aukeratu da Tolosa: euskaraz duen tokiagatik, komunikazioagatik, eta euskal kulturarekiko duen loturagatik. Unibertsitateak erreferentzialtasun hori aitortzeko balioko du.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Asteasun atzo Jubilatueguna izan zuten atzokoan eta ehun bat lagun elkartu ziren frontoian egindako bazkarian. I. GARCIA



Hamaiketako hartu zuten meza nagusiaren ondoren. ANDER OTEZABAL



Asteasun herritarren arteko lehia jende ugari izan zen ikusle moduan. ANDER OTEZABAL



Leaburuko dantzari txikiak erakustaldia egin zuten herritarren aurrean. ANDER OTEZABAL

Sanpedroei ere datorren urtera arte

**Aurtengoan ere,
Tourreko tropela
Kanariar irletara!**

Abian da tropela.net:
Tourra, sarean, euskaraz,
eta sariekin...

Izen ematea doan.
Izen emateko epea: larunbata, uztailek 5, 12:00an



tropela.net

Jaiak» San Pedro Eguna ospatu zuten herenegun hainbat lekutan eta Asteasun Jubilatuen Eguna izan zen atzo.

ERREDAKZIOA

Uda jaien urtaroa da eta Tolosaldea ez da salbuespena. Baina gauza guztietan bezala, jaiak ere hasi eta bukatu egiten dira. Azken egunotan sanpedroetan murgilduta

izan dira Asteasu eta Leaburu eta San Pedro Eguna ospatu zuten ere Larraitzen eta Urkizun.

Asteasun zertxobait gehiago luzatu dituzte jaiak eta atzo Jubilatuen eguna ospatu zuten. Ehun bat lagun elkartu ziren Udalak eskainitako bazkarian. Ohi bezala, trikitilari eta bertsolariek girotu zuten frontoian egindako mahaingurukoa.

San Pedro Eguneakoak

Asteasun bertan San Pedro Egunean hainbat ekitaldi izan ziren. Horieta bat herritarren arteko

herrikirol lehia izan zen. Goibailarakoek irabazi zieten herrikoek.

Leaburun herriko dantzariak egindako saioak jende ugari erakarri zuen. Horren ondoren, herrikirolarien erakustaldia izan zen.

Tolosako Urkizu auzoan eta Abaltzisketako Larraitzen auzoan ere izan ziren ekitaldiak. Txindokiren magaleko auzoan meza nagusia eta ondorengo hamaiketakoan jende ugari elkartu zen. Urkizun ere hamaiketako egin zuten eta toka txapelketa goizean eta umeen jolasak eta bolo txapelketa arratsaldean.

Erronka burutu zuen igandean Alpino Uzturre elkarteak: Gipuzkoako 112 mendietan bazkideren bat izatea; Horrela ospatu zuen aurten 50 urte betetzen dituela mendi elkarteak.

Alpino, mendi guztietan

JOXEMI SAIZAR

Alpino Uzturrek aurreko iganderako jarrita zuen erronka ondo burutu zuen: Gipuzkoako 112 mendietan izan zen bere bazkideren bat. Horrela ospatu zuen aurten 50 urte betetzen dituela mendi elkarteak.

Lehenengo urte amaieran sortu zen ideia, urtemugaren ekitaldiak prestatzen hasi zirenean. Lehen ere egina zuen gauza bera, gutxienez 1971n eta 1975ean, guk dakigula. Eta beste mendi taldeek ere egin izan dituzte horrelakoak urtemugaren bat izan dutenean. Aurten gorako ekitaldi gehiago ere badaudenez, lanak banatu eta arduradun batzuk izendatzea izan zen lehendabiziko eginkizuna eta Isidro Lopez eta Jose Manuel Barriola izan ziren horiek. Egutegia begiratu, data aukeratu zen: san Pedro eguna. Mendi federazioak 100 mendi-ko lehiaketarako prestatuta duen mendi zerrenda hartu eta Gipuz-

Azken boluntario horiek kostata lortu ziren eta azkena hiru egun lehenago lortu zen

Eguraldi ona aurreikusita bazegoen ere mendi askotan behelainoa izan zuten egun osoan zehar

koan 112 mendi puntuagarri daukela ikusi zuten. 112 bazkide behar ziren erronka burutzeko, gutxienez. Lehendabiziko deialdia Alpino Uzturreren maiatzeko irteeran egin zen. Autobusean bertan behar zen kopuruaren heren bat lortu zuten. Bakarrik aritu beharrean, biko, hiruko eta lauko taldetxoetan eman zuten izena mendizale gehienek, horrela taldetxo bakoitzak elkarren artean gertu dauden bi, hiru edo lau mendi egiteko. Ondorengo pausoa elkarteko 500 bazkideei gutuna bidaltzea izan zen, ekimenaren berri emanez eta parte hartzea animatuz. Hortik bere heren bat edo lortu zuten. Horietako batzuk bere baldintzakoak jartzen hasi ziren: "niri gertuko bat eman, gero bataioa daukat eta", "niri mendi hau, 1975ean ere hara joan nintzen eta", "niri berdin zait", "bezperan parranda daukat eta arratsaldean joango naiz", "guk ibilaldi zirkularra egingo dugu bi mendi puntuatuz"... Adinari begiratu, eskaera batzuk

onartu egin ziren: Ines Lasak (86 urte) Uzturre, Mikel Arrastoko etxetik gertu duen Mendizorrotz eta Luis Mari Inzak bere jaioterrian dauden Artzanburu eta Arkaitz lagun batekin egitea eskatu zuten, duela 33 Urte bezela.

Ustekabeak, gazteenak, mendi altuenak

Izena emandako mendizale bakoitzari bere mendia adjudikatzen hasi ziren antolatzaileak. Baina oraindik heren bat edo falta zen. Hor izan dute lanik handiena, eta Aitor Oiarbide lehendakaria burubelarri aritu da horretan. Azken boluntario horiek kostata lortu ziren eta azkena hiru egun lehenago, ostegunean, lortu zen. Sarastarri mendia tokatu zitzaion. Baina taldea osatuta zegoenean, ustekabea izan zen ostiralean: Samiñora eta Izazpera joan behar zuten bi ahizpeiz behar zitzaion. Beste bi lagun bilatu behar. Larunbatean bertan lortu zuten.

Lehen aipatu ditugun beteranekin batera, gazte txo batzuk ere parte hartu dutela esan behar da. Gazteena 14 urtekoa, baina adin beretsuko beste pare bat ere baziren. Nahiz eta ez puntuatu, bazkide ez delako, 6 urteko ere izan zen Txarabeltzen bere aitarekin batera. Mendirik altuenak, Aitxuri (1.551 metro) eta Aizkorri (1.528 metro), bikote batekin egin zituen, Hiru Handietako prestakuntza aprobetxatuz. Baxuena, Tontorra mendi (386 metro) da, Ondarru inguruan.

Txartela eta argazkia

Igandea iritsi eta eguraldi ona aurrirakusten zen, baina mendi askotan behelainoa izan zuten egun osoan zehar. Bi enkargu zituen mendizale bakoitzak: txartela uztea eta argazkia ateratzea. Argazki asko eta asko baino inguratuta ateraziren. Bakarrik joan zirenek beste arazotzat zuten kasu askotan: argazkia ateratzeko inor ez aurkitu eta automatikoaren funtzionamendua ikasi behar izan zuten. Batzuk oso goiz mugitu ziren, Aiako harria adibidez, beste gehienak etxetik ateratzeko igo zuten. Ines Lasak laguntzaile berezia izan zuen Uzturre gotzen, 50 urteurreneko liburu-bideorako irudiak hartzen ari den Pablo Dendaluz. Mendizale batzuk zegoen tontorra bilatzen ere nahiko lanak izan zituzten, iristeko bidea zaila zelako eta behelainoak ez zuelako



Antxon Oiarbide, Jone Otermin, Rita Lanzeta eta Javier Martikorena Erlon. Beste hiru mendi ere igo zituzten. HITZA

laguntzen. Ustekabeak ere izan ziren: Otarrera joan zirenek buzoio Alpinoko beste txartel bat aurkitu zuten, egun berean utzita. Batzuk eguerdirako etxean ziren bueltan,

beste batzuk mendian bertan edo inguruan bazkaldu zuten, egunpasa eginaz.

Kontuak kontu, hasieran jarritagora helburua bete zen eta Alpino

mendi elkarteko bazkideak Gipuzkoako tontor puntuagarri guztietara iritsi ziren. Hurrengo ekitaldi bereziaren zain geldituko gara.

Gipuzkoako Sega Txapelketako lehen txapela eskuratu du 'Urki'-k

Sega » Bigarren Goikoetxea izan da, atzetik Arteaga eta Aranalde izanik; lauak Euskadiko Txapelketan ariko dira.

NEREA URBIZU

Igandean Zaldibian Gipuzkoako Sega Txapelketa jokatu zen eta espero zen bezala, Jexux Mari Ormaetxea *Urki*k eskuratu zuen txapela, «merezita gainera». Zazpina sail ebaki behar zituzten eta orendainarrak lana bukatuta zeukan, beste segalari guztiak 6. sailarekin ari ziren bitartean. Ia ehun kiloko aldearekin nagusitu zen.

Lehenengo saila «berrehala» bukatu zuten denek: jadanik honetan *Urki*k nagusitasuna erakutsi zuen, Aranalde hurbiletik izanik. Saio ederra egin zuen *Urki*k.

Hiru sailkapen proba egin ondoren, lau segalari lortu zuten finalerako txartela. Ormaetxeaz gain, Andoni Goikoetxea, Mikel Aranalde eta Arkaitz Arteaga ere aritu ziren. Ordubeteko lanean, 2.689 kilo belar ebaki zituen Orendaingoak. Bere atzetik, 94,5 kilo gutxiago ebakita, bigarren postuan geratu zen Andoni Goikoetxea gazte-



Ormaetxea segalari orendainarra aurreko kanporaketa batean. HITZA

lurra. Hasieratik aurrea hartu zuen *Urki*k, eta hirugarren saila bukatutakoan Goikoetxea aurretik jarri bazen ere, Orendaingoak buelta eman zion saioari.

Eskualdeko lau Gipuzkoakoan Hiru jardunaldiko sailkapen liga jokatu ondoren, ondoko lau segalariak sailkatu ziren igandeko finalerako: *Urki*, Andoni Goikoetxea,

Mikel Aranalde eta Arkaitz Arteaga. Sailkapeneko lehen jardunaldian Goikoetxea gailendu zen, nazioarteko eran. Hurrengo bietan, ordu erdiko saioan zeinek belar-kilo gehien ebaki, *Urki* gailendu zen. Igandekoan ordubetek lana bete behar izan zuten lau segalariak.

Belarrari dagokionez, lehen ebakialdikoa zen eta handi samarra; beraz, aitzakiarik ez zuten izan segalariak. Ebakitako kiloez erabaki zuten sailkapena, baina txukuntasuna ere aintzat hartu zenez, bi segalari jaso zute penalizazio bana: *Urki*k eta Goikoetxeak. Penalizazioa 20 kiloko izan zen.

Euskadiko Txapelketara

Guztira 150 ikusle inguru bildu ziren Zaldibiko Ibarburuko zelaian. Orain, bertan aritu ziren lau segalariak Euskadiko Txapelketan ariko dira abuztuaren 10ean, Leiztako festen baitan. Bertan Gipuzkoako Txapelketako finalean aritutako laurak gehi Jon Kanflanka ariko dira.

I. Sega Liga nazioarteko eran

Larunbatean Almitza sega elkariteak antolatutako nazioarteko era-ko Euskal Ligako hirugarren jar-

» SAILKAPENA

■ **Lehenengoa.** Jexux Mari Ormaetxea *Urki* (Orendain): 2.689 kilo, penalizazio bat; 20 kilo gutxiago.

■ **Bigarrena.** Andoni Goikoetxea (Gaztelu): 2.594,5 kilo, penalizazio bat; 20 kilo gutxiago.

■ **Hirugarrena.** Arkaitz Arteaga (Baliarrain): 2.553 kilo, penalizazio bat.

■ **Laugarrena.** Mikel Aranalde (Gaztelu): 2.413,5 kilo; penalizazio bat.

dunaldia izan zen eta Gabirondotarrak nagusitu ziren. Joxe Gabirondo dago sailkapeneko lehen postuan, *Altzoren* aurretik. Jokin Garmendia Baliarraindarra 4. postuan dago eta 7. Kanflanka.

Emakumezkoen artean Maria Luixa Gabironda dabil hobekien, 2,31ko denbora eginda. Bigarren eta berarengandik oso hurbil Ga-

Hurrengo saioa hilaren 13an izango da Asteasun; hiru jardunaldi geratzen dira liga bukatzeko

rin legorretarra dago, eta 3. lekuan Mazkarian altsasuarra.

Parte hartzen ari diren segalari guztiak hilaren 13an berriz ariko dira Asteasun, 17:30ean. Asteasuko barne, hiru jardunaldi gelditzen dira liga bukatzeko. Guztira, 29 gizonetako eta 10 emakumezko ari dira, eta eskualdeko 19 dabilta.

«Konfidantza nuen nire buruarengan eta entrenatzen ere ondo aritu naiz»

JEXUX MARI ORMAETXEA » Segalaria

Orendain » Gipuzkoako Sega Txapelketa irabazi du aurten; lortutakoarekin «gustura» dago segalari orendainarra.

N. URBIZU

Jexux Mari Ormaetxea *Urkiren* Gipuzkoako Sega Txapelketako lehenengo txapela eskuartean hartu zuen herenegun. «Oso pozik» egoteko arrazoiak baditu

(1974, Orendain). Orain, Euskadiko Txapelketari helduko dio.

Faborito zinen Zaldibian, baina nola ikusi zenuen zure burua?

Hasieran aurrea hartu nahian ibili ginen denak. Baina jardunaldiaren erdialdetik aurrera Goikoetxearen eta nire artean zegoen txapela. Azken bost minutuetan nik maila mantendu egin nuen, eta Goikoetxeak esfortzu gehiago egin behar izan zuen mantentzeko. Azkenean, nik bukatu nuen lehenago. Kanporaketetan errazago egin nuen lana, lasaigo egin nuelako lo eta azken batean, etxean egongo bazina bezala egiten duzu lana.

Espero zenuen?

Aurretik ondo sentitzen nintzen, eta ia z bano hobeto nengoen. Au-

rreko bi kanporaketetan lehenengo egin nuen ere. Baina final bat beti final bat da, eta kontua izan behar da, ez dakizulako nola erantzungo dizun gorpuzak, presio hori daukazu. Baina konfidantza nuen nire buruarengan eta entrenatzen ere ondo aritu naiz. Azkenean nik nire a egin nuen.

Zure lehen txapela. Pozik?

Nire lehenengoa, bai. Askotan bigarren edo hirugarren egin izan dut, baina txapela garestia da. Beti atzetik ibili naiz eta ez zen ailegatu. Gustura nago lortutakoarekin.

Penalizazio bat izan zenuen.

20 kiloko penalizazioa jaso nuen. Nire ustez, azken sailekoan izan zen, azken arte ondo ibili nintzela iruditzen zait. Azken honetan kolpea bota nuen baina behera ez zen ailegatu eta ondo ebaki gabe utzi nuen. Igandeko belarra pixu askokoa zen, gogorra. Kargaren kontua baino, ebakitzeko zaila zegoen.

Ia 100 kiloko alde atera zenien Goikoetxeari.

Baina ez da hainbeste belar mota horrekin, azken batean, belarra

gogorra zen. Belarra arinagoa baldin bada asko izan daiteke, baina kasu honetan ez zait hainbeste iruditzen.

Orain Euskadikora joango zara.

Abuztuaren 10ean izango da Leiztaz (herriko festetan). Bertan ariko gara herenegungoak, gehi Leiztazko Jon Kanflanka. Denbora gehiegi dugu aurretik, hilabete eta erdi ia-ia. Igandekoak prest geunden, puntu-puntu eta gorabehera handiak egon daitezke orain artean. Batzuk hobetu egin dezakete, baina bestela, hori aztertu beharko da; nola entrenatu, zenbat aritu, ondo kalkulatu behar da.

Finalerdirik ez da izango?

Ez. Bizkaiko inor ez da aurkeztu, Nafarroan hiru ziren hasiera batean baina azkenean Kanflanka dago bakarrik. Gutxi geratu gara, zuzenean denak final handian izanik. Egia esan, pena da Bizkaitik inor ez izatea.

Bere alde onak ere baditu horrek.

Bai, baina herenegungoak, adibidez, aherio gogorak dira. Txapela nahi duenak lana egin beharko du, igandean egin genuen bezala. Txapela denentzat egongo da garesti.

Laburrak

Ugarteko betizu-jateko argazkiak interneten

UGARTE » Joan den larunbatean, Ugarten betizu jatea egin zuten, bertan, ia 100 lagun elkatu zirelarik. Ugarteko biztanleek argazkiak interneten ikusgai izateko lana egin dute eta honakoa da helbidea: <http://ugaretek.blogspot.com/>.

KMK-08 zozketako hiru zenbaki sarituak

IRURA » KMK-08ko zozketako zenbaki irabazleak jada atera dira: landetxerako asteburuko egonaldiaren zenbaki irabazleak hauek dira: 062.833, 111.065 eta 088.262. Laguntza eman zuten dendarien artean zozketatutako afariaren irabazlea Tolosako Leiztaz kaleko Amaia lenteria izan da.

Etzi eta etzidamu umeentzako jolasak plazan

ANOETA » Etzi eta ostiralean, plazan jolasak antolatuta dituzte LH1 eta LH6 bitarteko umeentzat. Lau monitorere egongo dira jokatuak antolatu zuten bi egun hauetan, goizez, 10:00etatik 13:00etara. Hilaren 17an, berriz, 10:00etatik 13:00etara herri kirolak izango dira. Ez da beharrezkoa izena ematea.

SAN BENITO IKASTOLAK
08-09 IKASTURTE
OSORAKO
ondoko irakasleak behar ditu,
(epea luza daiteke):

- Goi Mailako Ingeniaria
- Hispaniar Filologia duena

Interesatuok, uztailean 4rako bidali curriculumaz lazkao@ikastola.net helbidera

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai, Tolosako alde zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuak deitu: 657 23 00 11 / 634 91 94 82.



Goizean aizkolariak eta sokatira izan ziren eta ondoren umeak aulki-dantzan aritu ziren. N. GARZIA



Murua eta Zubeldia bertsolariak bazkalarrean bertso saioa egin zuten, baita bazkaldu ondoren ere. N. GARZIA

Aizkolariak, bertsolariak, bazkaria eta joko ugari Gorriztarango Egunean

Leitza » Bazkaltzera 50 lagun bildu ziren, joan den urtean baino gutxiago, eta mus txapelketan 21 bikotek hartu zuten parte.

NAIARA GARZIA

Herenegun Gorriztarango Eguna ospatu zuten, urtero ekaineko azkeneko igandean ospatzen baitute. Aurtengoan, San Pedro Egunarekin bat egin zuten eta goizetik hasita ekitaldi ugari izan ziren Basa-Kabin, hantxe ospatzen baitute urtero.

Goizeko 10:00etan eman zioten hasiera jai egunari, Basa-Kabiko kaperan egindako mezarekin. Gorriztarango Egunean soilik irekitzen dute kapera hau. Ondoren, Rekondo eta Arria elkarren aurka aritu ziren, Arriak irabazi zuelarik.

Sokatira saioa ere egin zuten, Gorriztarango bizilagunek soilik parte hartu zutelarik, eta ezkongabeak ezkonduen aurka aritu ziren. Umeek ere beraien artean izan zuten eta aulki-dantzan aritu ziren, trikitilarien musikaren laguntzarekin.

Bazkarian, 50 lagun

Bazkalarrean Murua eta Zubeldia bertsolariak bertso saioa egin zuten eta 14:00etan Basa-Kabin bertan bazkaltzeko ordua iritsi zen. 50 lagun inguru elkartu ziren bazkaltzera, joan den urtean baino gutxiago, 70 lagun elkartu baitziren, inoiz baino gehiago.

Bazkaltziarrak hagitz gustura egondu ziren Tele Caballero antolatzaileak azaldu duenez eta jaki goxoak jan zituzten. «Oso giro polita egondu da, trikitilariak eta bertsolariak giro ona jarri dute. Triki-

tilariak ez ziren inoiz egondu eta asko animatu dute giroa».

Arratsaldean jokoak izan ziren nagusi, mus eta txintxurri txapelketa egin baitzituzten. Mahaitik altxatu gabe 17:00 aldera mus txapelketa hasi zen. Orotara 21 bikotek parte hartu zuten eta Caballero esan bezala, «luze» jo zuten.

Dantzaldia azkenean barruan egin zuten, eguerdira arte non eginen zen zehaztu gabe zegoen arren, lainotu zenez barruan egi- tea erabaki zuten. 19:00etan hasi zen dantzaldia Koldo Mauleonen eskutik, gauerdia arte.

Bitartean, txintxurri txapelketa egin zuten 20:00etatik aurrera. «Parte-hartzaile gutxi izan ziren, baina hauei begira, jende asko». 20:30ean zozketaren txanda iritsi zen. 8 sari zozketatzen zituzten eta sari guztiak atera ziren. Festa guerdian amaitu zen.



Ostiralean egin zuten emanaldia amaitu ondoren, aktore guztiak. N. GARZIA

Urriari berriro antzeztuko dute 'Bihar osteguna da'

Antzerkia » Espero baino jende gutxiago joan zenez, larunbatean bereziki, erabaki hori hartu du Txinparta Antzerki Taldeak.

N. GARZIA

180 lagunek ikusi dute asteburuan *Gaur osteguna da* antzezlan. Lehenengo emanaldia ostiralean egin zuten, 21:00etan eta bigarrena larunbatean, 19:00etan. Espero baino jende gutxiago joan zenez, Lur Korta zuzendariak azaldu duenez, «urriari berriro antzeztuko dugu».

Ostiralean 110 lagun joan ziren zinemara antzezlan ikustera eta

larunbatean, 70. «Larunbatean ostiralean baino jende gutxiago etorri zen eta alderantziz gertatuko zela uste genuen. Halere, etorri zen jendea oso gustura gelditu zen».

Bihar osteguna da umorezko antzezlan bat da, jendeak barre dezente egin zuten eta aktoreek txalo zaparrada ederra jaso zuten emanaldia amaitzean: Jaione Mariezkurrena, Maitane Mariezkurrena, Beñat Huarte, Maite Perurena, Juani Barriola, Orkatz Erbiti, Jokin Baucis eta Koldo Lebronek.

Karrape Irratian zenbait grabaketa egin zituzten, bertan abestu egiten zuten eta gero oholtza gainean play-back a egin zuten, tarteka musikal ukitua emanez.


Laburrak

Euskal Jaia antolatzeko bilera gaur, 20:00etan

ANOETA » Euskal Jaia antolatzeko bigarren bilera egiteko deialdia egin dute. Uda ondoren Anoetan Euskal Jaia antolatu nahi dute. Dagoeneko lehenengo bilera egin dute eta prestakuntzekin jarraitzeko beste bilera bat egingo dute gaur bertan, 20:00etan, herriko udaletxean.

Uztailean liburutegia zabalik egonen da

ANOETA » Liburutegia ekainaren 30etik aurrera abuztua bitarte zabalik egonen da, astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 13:00etara, internet erabili nahi dutenentzat 10:00etatik 13:00etara. Abuztuaren itxi egingen dute. Bestalde, udal dantza eta pilota eskolako matrikulazioa epea irailean hasiko da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



24°
17°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	20°
HOTZENA	15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Ibarra.** Bihar festa Batzordearen bilera udal batzar aretoan 20:00etan San Bartolome jaien antolakuntzan jarraitzeko.
- **Alegia.** Alegiako Intxurre pilota eskolako denboraldi amaieran afaria egingo dute uztailaren 3an. Afarira etortzeko pilota eskolakoek Alegiako Kultur eta Kirol Etxean eman behar dute izena.

Irteerak

- **Tolosa.** Hilaren 10erako Iruñeko sanferminetara irteera antolatu du Harizpek, Bazkaria Blanca de Navarran. Izen-ematea, elkartean.


Erakusketak

- **Ibarra.** VIII. Kultur Lantegietako Artelanen Erakusketa zabalik aurkitzen da Benito Izagirre kultur etxean 09:30etik 13:30etara.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Ugarte, MT. Euskal Herria, 46. 943 670128.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Sagain mendi taldea Aizkorri aldera

ASTEASU ■ Sagain menditaldeak irteera erakargarria antolatu du igande honetarako, uztailaren 6rako. Hain zuzen ere, Aizkorri ingurura joango dira Asteasukoak eta bi aukera eskaintzen dituzte: lehenengoan, Otzaurte-San Adrian-Aitzkorri-Urbiar-Arantzazu Aizkorriko mendikatea zeharkatuko dute, 5 ordu inguru erabiliko dituztelarik horretarako. Erdi mailako

zailtasuna izango duen ibilbidea dela azaldu dute elkartetik. Bigarrenengan, errazagoa dena, Otzaurte-San Adrian-Urbiar-Arantzazu ibilbidea egingo dute. Bazkaldu Urbian egingo dute. Interesatuak izena eman dezakete osteguna baino lehen kiroldegira deituz gero. Igandean, Asteasuko plazatik abiatuko dira, 08:00etatik aurrera. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Aitor Agirrebarrena. Zure Lizartzako osaba-izebak eta lehengusuak. Eutsi goian!

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.

hitza

elastiko berriak salgai

haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin
poltsa opari!

Harpidedunentzat
%25
merkeago

hitza®

Tolosako HITZaren bulegoan eskuragarri.